BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5238

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 24koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, IEFPS Usurbil GLHBI entitatea profesional baimenduak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa aitortzeko dena.

Esp. zk.: SEG/0035/2014.

AURREKARIAK

1.– IEFPS Usurbil GLHBI entitatearen ordezkaritzak, 2014ko ekainaren 24an, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, profesional baimenduak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa aitortzeko eskabidea aurkeztu zuen, espezialitate hauetan egiaztatze-agiria lortzera zuzenduta dauden prestakuntza-planetan:

– Gas-instalatzaileak:

IGA

IGB

IGC

2.– Atxikitako agiriak aztertu ondoren, dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu zitzaion eskatzaileari eta, horrek, eskaera 2014/10/28an bete zuen, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntza-txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. Kapituluan aurreikusitako eskakizun eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten zenbait agiri aurkeztu zituelako espedientean, bereziki hauek:

– Entitatearen identifikazio-datuak, egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan izanik: Zubieta Auzoa, Etarte kalea, 9. zenbakia, (20170) Usurbil.

– Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko entitateak dituen giza baliabideen deskribapena.

– Garatuko diren ikastaroei buruzko zehaztapenak, gaiak, metodologia, antolakuntza eta ebaluazio-sistemak xehetasunez azalduta.

3.– IEFPS Usurbil GLHBI erakundeak hezkuntza-alorrean eskumena duen sailaren baimena dauka norbanakoaren prestakuntza-txartelekin lotuta dauden lanbide-prestakuntza arautuko zikloak lanbide-heziketako ikastetxe gisa emateko.

4.– 2014ko azaroaren 6an, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako buruak IEFPS Usurbil GLHBI entitate aintzatetsi gisa baimentzearen aldeko txostena egin zuen, entitate horrek eginiko eskaerarekin lotuta.

Espedientea ebazteko, honako hauek kontuan hartu eta ondorengoen aipamena egin behar da:

OINARRI JURIDIKOAK:

1.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraituz egin dira espedientearen izapideak.

3.– Halaber, egiaztatuta geratu da IEFPS Usurbil GLHBI delakoak betetzen dituela aipatutako 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan, eskatzen diren betebeharrak; bere instalazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan daudelarik.

4.– Halaber, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, erakunde eskatzaileak ikastaroei buruzko dokumentazio nahikoa aurkeztu du, gai-zerrendak, metodologia, antolakuntza eta ebaluatzeko aurreikusitako sistemak zehaztuz. Era berean, erakundeak ikastaroak emateko dituen giza baliabideak behar bezala justifikatu dira.

Adierazi diren lege-xedapenak eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen gainerako arauak aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– IEFPS Usurbil GLHBI entitatea baimendutako profesionalak prestatzeko erakunde aintzatetsitzat aitortzea, espezialitate honi buruzko prestakuntza eman dezan:

– Gas-instalatzaileak:

IGA

IGB

IGC

2.– IEFPS Usurbil GLHBI baimendutako profesionalak prestatzeko entitate aintzatetsien erregistro berezian inskriba dadila xedatzea; zenbaki hau izango du: REFPA A-0114 zk.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industria sailburuordeari, jakinarazten denetik hilabeteko epearen barruan. Hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 24a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.